UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN LURRALDE EREMUKO ETXE, KOMERTZIO, ZERBITZU ETA INDUSTRIETAN SORTUTAKO ETXEKO HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESKAKIZUN TEKNIKOEN ORRIAK.

AURKIBIDEA

I. ATALA. ALDERDI OROKORRAK 3

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA 3

2. LURRALDE-EREMUA 4

3. ZERBITZUAREN ORDENANTZA 5

4. JASOTAKO MATERIALEN JABETZA 5

5. HONDAKINEN HELMUGA 5

6. BILDUTAKO KOPURUAK 5

7. ZERBITZUA EGOKITZEKO FASEA 5

8. PAPERA/KARTOIA, ONTZI ARINAK ETA HONDAKIN ORGANIKOAK GAIKA BILTZEA, ERREFUSA MASAN BILTZEA ETA HORIEK GUZTIAK ENTREGATZEKO LEKUETARA GARRAIATZEA 6

9. HONDAKINAK ATEZ ATE BILTZEA KOMERTZIOETAN, ZERBITZUETAN ETA OSTALARITZAN 7

10. HONDAKINAK GAIKA ATEZ ATE BILTZEA INDUSTRIAN 9

11. BESTE BILKETA ZERBITZU BATZUK 11

11.1. LAGUNTZEKO ETA ERREPASATZEKO ZERBITZUA 11

11.2. BEREIZTUTA BILTZEA KALEAN ETA GARRAIATZEA: ALTZARIAK, APARAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOAK (RAEE) ETA BESTE HONDAKIN HANDI BATZUK 11

11.3. GAIKA BILTZEA ERABILITAKO PILAK 12

11.4. BEREIZTUTA BILTZEA ETA GARRAIATZEA UDAL AZOKA, AZOKA IBILTARI ETA GISA BEREKOETAN SORTUTAKO HONDAKINAK 12

11.5. BEREIZTUTA BILTZEA ETA GARRAIATZEA JAI ETA EKITALDIETAN SORTUTAKO HONDAKINAK 13

11.6. KALE GARBIKETAKO ZERBITZUEK JASOTAKO HONDAKINAK BILTZEA 14

11.7. LURPEKO EDUKIONTZIAK BILTZEA 14

11.8. LANGILE ERRETEN TALDEA ETA MATERIALAK 15

12. INSTALAZIO FINKOEN EKIPAMENDU ETA MANTENTZE-LANAK 16

13. ANTOLAKETA, KONTROLA ETA JARRAIPENA 17

13.1. ZERBITZUEN ANTOLAKETA 17

13.2. ZERBITZUEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA 17

13.3. INFORMAZIO SISTEMAK 19

14. ZERBITZUAK ESKAINTZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK 21

14.1. HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO LANAK 21

14.1.1. Kalitatea, garbitasuna eta segurtasuna zerbitzuak eskaintzerakoan. 21

14.1.2. Edukiontziak husteko maiztasuna 22

14.1.3. Hondakinak biltzeko ekarpen guneen eragin esparrua 23

14.1.4. Kaleko edukiontzien bidezko zerbitzuak 23

14.1.5. Atez ateko zerbitzuak 24

14.1.6. Lurpeko edukiontziak 24
14.1.7. Hondakinak biltzeko egutegi eta ordutegiak 25
14.1.8. Pisatzeko sistemak 25
14.1.9. Edukiontzien eta bilketa puntuen kokapena 26
14.1.10. Hondakinak entregatzeko zentroak 26
14.2. LAN OSAGARRIAK 27
14.2.1. Galdutako objektuak bilatzea 27
14.2.2. Bilketa ibilgailuen mantentze-lanak, konponketak eta garbiketa 27
14.2.3. Edukiontziak garbitu eta desinfektatzea 28
14.2.4. Edukiontziak eta ontziak mantentzeko, zaintzeko eta konpontzeko lanak 30
14.2.5. Edukiontzi eta ontziak bildu, lekuz aldatu, entregatu eta jartzea 32
IV. ATALA. LANGILEAK 34
15. LANGILEAK 34
16. KONTRATUA BURUTZEKO EGIN BEHAR DIREN INBERTSIOAK 36
17. EDUKIONTZIAK ETA ONTZIAK 36
18. IBILGAILUAK 37
19. KALITATEAREN KUDEAKETA 38

ERANSKINAK:

ERANSKINA 1: MANKOMUNITATEAN BILDUTAKO HONDAKINAK

ERANSKINA 2: MANKOMUNITATEAK UTZI BEHARREKO ONDASUNEN ZERRENDA

ERANSKINA 3: KALEKO BILKETA-GUNEEN KOKAPENA ETA GUTXIENEKO BILKETA-MAIZTASUNAK

ERANSKINA 4: KALEKO BILKETA-GUNEEN KOKAPENA, ALBOKO ZAMAREKIN ETA GUTXIENEKO BILKETA-MAIZTASUNEKIN BILTZEA EZINEZKOA DENEAN

ERANSKINA 5: ZERBITZUAK PROGRAMATZEKO PROPOSAMENA

ERANSKINA 6: OSTALARITZAKO DENDEN ETA ESTABLEZIMENDUEN ZERRENDA

ERANSKINA 7: GETARIAKO ERDIGUNEKO ETA PORTUKO ETA ZARAUZKO MALEKOIKO ATEZ ATEKO BILKETAREN ERABILTZAILEAK

ERANSKINA 8: ENPRESEN ZERRENDA

ERANSKINA 9: BOLUMEN HANDIKOAK BILTZEKO EGUTEGIAREN ZERRENDA

ERANSKINA 10: PILAK BILTZEKO PUNTUEN ZERRENDA

ERANSKINA 11: UDAL AZOKEN ZERRENDA

ERANSKINA 12: JAI ETA EKITALDIEN ZERRENDA

ANEXO 13: LURPEKO EDUKIONTZIEN ZERRENDA

ERANSKINA 14: PROGRAMA INFORMATIKOAREN ELEMENTUAK

ERANSKINA 15: SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN ZERRENDA

ERANSKINA 16: ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKO GUTXIENEKO INBERTSIOAK

ERANSKINAK 17: IBILGAILU EROSI BERRIEK BETE BEHARREKO GUTXIENEKO BALDINTZAK

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN LURRALDE EREMUKO ETXE, KOMERTZIO, ZERBITZU ETA INDUSTRIETAN SORTUTAKO ETXEKO HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESKAKIZUN TEKNIKO ZEHATZEN ORRIAK.

I. ATALA. ALDERDI OROKORRAK

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Baldintzen orri hauen arabera egingo den kontratuaren objektua da Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuko (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako) etxe, komertzio, zerbitzu eta industrietan sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzea. Halaber, objektuan sartuta daude zerbitzu hori egoki burutzeko egin behar diren ibilgailu eta bitarteko materialen inbertsioak. Kontratua burutuko da eskakizun tekniko zehatzen orri hauen, administrazio baldintza zehatzen orrien, Udal Elkarteko teknikariek ematen dituzten jarraibideen eta kontratuaren esleipendunak egiten duen eskaintzaren argitara.

Bilketa sistema bitarikoa da, izan ere, alde batetik, kalean jarri eta derrigorrez erabili behar diren edukiontziak erabiliko dira, eta, beste alde batetik, ekoizle jakin batzuei (komertzio, azoka, ostalaritza, ikastetxe eta antzekoei) eta industriari hainbat frakzio atez ate jasoko zaizkie, ontzi eta edukiontzi txikien bidez:

A. Papera/kartoia, ontzi arinak eta hondakin organikoak gaika biltzea, errefusa masan biltzea eta horiek guztiak entregatzeko lekuetara garraiatzea, era honetara:
   - Papera eta kartoia edukiontzien bidez.
   - Ontzi arinak edukiontzien bidez.
   - Hondakin organikoak edukiontzien bidez.
   - Errefusa edukiontzien bidez.

B. Gaika biltzea, atez ate, honakoetan sortzen diren errefusa, papera/kartoia eta hondakin organikoak; plastikozko, egurrezko eta poliespanezko kaxak; eta, horiek guztiak entregatzeko lekuetara garraiatzea:
   - Komertzioak, ostalaritza eta zerbitzuak.
   - Azoka eta azoka ibiltariak.
   - Jaiak eta ekitaldiak.

C. Gaika biltzea, atez ate, eta entregatzeko lekuetara garraiatzea honakoan sortzen diren errefusa, papera/kartoia, ontzi arinak, hondakin organikoak, egurra eta plastiko filma:
   - Industriak.

D. Beste hondakin batzuk gaika bildu eta entregatzeko lekuetara garraiatzea, hala nola:
   - Laguntzeko eta errepasatzeko zerbitzua.
   - Hondakin handiak, kalean utzita daudenak.
   - Erabilitako pilak, komertzioetan eta kalean jarritako edukiontzien bidez jasotakoak.

Kontratuan sartzen dira, baita ere, beste lan batzuk, hala nola:
- Instalazio finkoak zaindu eta mantentzeko lanak egitea.
- Bilketa ibilgailuen mantentze, konponketa eta garbiketa.
- Edukiontziak eta ontziak garbitzeko lanak.
- Hondakinen kaleko ekarpen guneak garbitzea.
- Edukiontziak eta ontziak mantentzeko, zaintzeko eta konpontzeko lanak
- Edukiontziak jarri, lekuz aldatu eta entregatzea.
- Deskribatutako zerbitzuekin lotutako bestelako lanak.

Zerbitzuaren lanak egingo dira eskakizun teknikoen orri hauen, administrazio baldintza zehatzen orrien eta lehiaketaren esleipenaren haritik gauzatzen den kontratuaren arabera.

Ondoren datozen baldintzetan daude zehaztuta zerbitzu bakoitzaren gutxieneko eskakizunak.

Enpresa lizitatzaileei dagokie sistemarik eraginkorrenak proposatzea, gorago aipatutako zerbitzuak proposatutako bitartekoekin bideratzeko. Zehaztasun eta xehetasun osoz adieraziko dira zerbitzuak antolatzeko era, bitartekoak eta langileak.

Baztertuta geratzen dira eta, beraz, ohiko bilketa zerbitzuek ez dituzte derrigorrez jaso beharko honako hondakinak:

- Gaika biltzen diren eta baldintzen orri hauek objektutzat hartzen ez dituzten beste hondakinak (beira, landare olioa, arropa eta ehunkiak eta beste batzuk). Nolanahi ere den, hondakin horiek beren edukiontzietatik kanpora eta ekarpen guenen eragin esparruan baldin badaude, laguntzeko eta errepasatzeko zerbitzuak jaso egingo ditu.
- Lur mugimendu, eskabazio eta obra publiko nahiz pribatuetako zaborrak.
- Eraikuntza obra txikietako edo etxeetako konponketetako hondakinak. Nolanahi ere den, hondakin horiek beren edukiontzietatik kanpora eta ekarpen guenen eragin esparruan baldin badaude, laguntzeko eta errepasatzeko zerbitzuak jaso egingo ditu.
- Lorezaintzako eta berdegune publikoen mantentze-lanetako kimatze eta belar ebakitze hondakinak, salbu eta ekarpen-eremuaren eragin-eremuko edukiontzietatik kanpo badaude; kasu horretan, laguntza eta berrikuspen zerbitzuarekin batera jasoko dira.
- Hildako animaliak eta animalien azpiproduktuak, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 zenbakiko Erregelamenduan (CE) jasota daudenak. Hortaz, baztertuta geratzen dira, besteak beste, animalia hauen gorpuzkinak: animalia basatiak, granjako animaliak, etxeko animaliak (maskotak) eta zoologiko eta zirkoetako animaliak.
- Garbiketako hondakinak, bilketa zerbitzuaren bitarteko materialekin hustu ezin direnak.
- Abandonatutako ibilgailuak.
- Hobi septikoetako, estolderia-sareko eta hondakin-urak tratatzeko instalazioetako hondakinak, araztegiko lohiak barne.

2. LURRALDE-EREMUA

Kontratu honen objektu diren zerbitzuen lurralde eremua da Urola kostako Udal Elkartea osatzen duten udalerri guztiena, hala nola:

Udalerria	Biztanleak
Aia	2.033
Getaria	2.839
Orio	5.107
Zarautz	23.243
Zumaia	9.983
Guztira	43.205

Lurralde-eremu horretan egingo dira kontratu honen objektu diren lanak, honakoak izan ezik: hondakinak helmuga-zentrora garraiatzeko lanak eta lurralde-eremuaren zehaztapen berezirik ez duten lanak. Lan horiek kontratuaren lurralde-eremutik kanpora egin ahal izango dira.

3. ZERBITZUAREN ORDENANTZA

Kontratistaren betebeharra izango da betetzea, kontratu hau arautzen duten baldintzen orrietan eta indarrean dagoen araubidean xedatutakoez gain, Urola Kostako Udal Elkartean etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuen ordenantzak xedatzen duena eta hori bideratzeko Udal Elkarteak onartzen dituen jarraibide teknikoak edo segurtasun arauak.

4. JASOTAKO MATERIALEN JABETZA

Kontratu honen gai diren zerbitzuen bidez jasotako material guztiak Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoak dira, ondorio guztietarako.

Esleipendunak debekatua du jasotako materialak saltzea edo beste moduren batera baliatzea, material horietan bila aritzea, tartean pilatzea edo manipulatzea. Material horiek jaso diren bezala eraman behar ditu helmuga zentroetara, eskakizun tekniko orri hauek ezarritakoaren arabera.

5. HONDAKINEN HELMUGA

Bildutako hondakinak entregatuko dira kasuan kasu Udal Elkarteak zehazten duen instalazioetara. Hasierako entrega instalazioak daude zehaztuta eskakizun teknikoen orri hauen 14.1.10 baldintzan.

6. BILDUTAKO KOPURUAK

1. eranskinean daude zehaztuta Udal Elkartearen eremuan 2018, 2019, 2020 eta 2021ean hilabetez hilabete jasotako hondakinen kopuruak, frakzioz frakzio.

Urtaroen arabera (Aste Santua, udako hilabeteak, jaiegunak eta zubiak, zubiak, eta abar) hondakinak sortzen dituzten udal-eremuetan (hondartzak, turismo-eremuak, jolas-eremuak, ostalaritza-establezimenduak eta abar), esleipendunak edukiontzien hornidura eta bilketa-maiztasuna egokitu beharko ditu zerbitzu-beharretara, Mankomunitateko zerbitzu teknikoak baimena eman ondoren.

Zerbitzuen dimentsionamendu eta antolaketa eta gera daitezkeen denbora tarteak **urtero** aztertuko dira, zerbitzuak une bakoitzeko beharretara moldatu ahal izateko.

7. ZERBITZUA EGOKITZEKO FASEA

Zerbitzuaren egokitzapen-fase gisa definitzen da zerbitzuak ematen hasi eta hurrengo hilabetearen lehenengo hilabetea hartzen duen aldia. Esleipendunak ezin izango du, inola ere, epe hori gainditu.

Zerbitzua egokitzeko fasean, enpresa esleipendunak agiri honetan ezarritako lurralde-eremuko edukiontzi guztien inbentarioa egin beharko du, eta transponder bakoitzari beste kode bat esleitu beharko dio, jasotzen duen kokapena, kokaleku mota, edukiontzi mota eta hondakin mota banaka identifikatzeko. Epe horretan, transponderrik ez duten edukiontzi guztiei jarriko zaie.

Mankomunitateak une horretan erabilgarri dauden edukiontzi guztiak lagako dizkio enpresa esleipendunari, eta berehala kontratistak betebehar guztiak izango ditu edukiontzi horiek biltzeari, garbitzeari, birjartzeari, aseguruei eta abarri dagokienez, baita zerbitzuko gainerako elementuei dagokienez ere.

2. eranskinean enpresa esleitzaileari lagatako elementuak deskribatzen dira.

II. ATALA. LEHIAKETAREN OBJEKTU DIREN LANEN DESKRIBAPENA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

8. PAPERA/KARTOIA, ONTZI ARINAK ETA HONDAKIN ORGANIKOAK GAIKA BILTZEA, ERREFUSA MASAN BILTZEA ETA HORIEK GUZTIAK ENTREGATZEKO LEKUETARA GARRAIATZEA

Zerbitzu honetan sartuta daude ekarpen guneetan jarritako kaleko edukiontzi monomaterialetan bereiztuta jasotako hondakinak (papera/kartoia, ontzi arinak eta hondakin organikoak) eta masan bildutako errefusa bildu eta Udal Elkarteak zehazten dituen biltegi, transferentzia estazio edo sailkatzeko eta berreskuratzeko plantetara garraiatzeko egin behar diren lan eta eragiketa guztiak.

Zerbitzuaren hartzaileak dira zehaztutako lurralde eremuko sortzaileak (papera/kartoia, ontzi arinak, hondakin organikoak eta errefusa), bai etxeetako sortzaileak (etxebizitzak), bai ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten hiri eremuetako establezimenduak.

Nolanahi ere den, kontratu honen bidez merkataritzan sortutako papera/kartoia, hondakin organikoak eta errefusa eta ekoizle berezien ontzi arinak kudeatzeko beste bide batzuk ere eskainiko dira, kalean jarritako edukiontzien erabilpena optimizatzeko, betiere gainezka egin gabe.

Kontratuaren bidez, bilketa zerbitzua eskainiko zaie, herriguneez gain (etxebizitzak, komertzioak, erakundeak, bulegoak, zerbitzuak...), honako eremu hauei: herrigunetik urrun dauden auzoak, sakabanatutako landa etxebizitzak, isolatutako etxe-sailak, aisialdiko eremuak, sabanakatutako ostalaritza establezimenduak, hilerriak, udal biltegiak (kaleko zaborrontziak hustetik sortutako hondakinak), gasolindegiak, ikastetxeak eta, oro har, gisa horretako hondakinak sortzen dituzten bestelako eremu edo jarduerak, betiere bilketa-zerbitzuarentzat irisgarria bada eta dagokion modalitatean sartzen bada.

Hondakinak biltzeko zerbitzuak honela eskainiko dira:

- **Papera eta kartoia gaika biltzea:** kalean (Udal Elkarteak zehaztutako lekuetan) jarritako albotik zamatzeko edukiontzien bidez. Erabiltzaileek paper eta kartoi hondakinak utz ditzakete edozein ordutan, urteko egun guztietan.

- **Ontzi arinak gaika biltzea:** kalean (Udal Elkarteak zehaztutako lekuetan) jarritako albotik zamatzeko edukiontzien bidez. Erabiltzaileek ontzi arinen hondakinak (plastiko, metal eta brikezko ontziak) utz ditzakete edozein ordutan, urteko egun guztietan.

- **Hondakin organikoak gaika biltzea:** zerbitzua eskainiko da kalean (Udal Elkarteak zehaztutako lekuetan) jarritako albotik zamatzeko edukiontzien bidez. Erabiltzaileek hondakin organikoak edukiontzietan utz ditzakete edozein ordutan, urteko egun guztietan. Edukiontziek irekiera kontrolatzeko sistema izango dute.

- **Errefusa masan biltzea: zerbitzua eskainiko da kalean jarritako edukiontzien bidez.** Erabiltzaileek errefusa utz dezakete edozein ordutan, urteko egun guztietan. Edukiontziek irekiera kontrolatzeko sistema izango dute.

Hondakinak jasoko dira polietilenozko 2.200 eta 3.200 litroko edukierako edukiontzi normalizatuetan, gune batzuetan 1.000 litroko polietilenozko edukiontziak jarri ahal izango badira ere.

3. eranskinean daude zehaztuta jaso behar diren edukiontziak, edukiontzi mota eta gutxieneko bilketa maiztasunak.

4. eranskinean, alboko kargarekin eta gutxieneko bilketa-maiztasunekin bildu ezin diren eremuetako edukiontzien xehetasuna jasotzen da.

Bilketa guztiak egunez egingo dira, inoiz ez goizeko 6: 00ak baino lehen, alboko karga-sistema duten ibilgailu autotrinkotzaileen bidez, eta, hala badagokio, zerbitzu-eremuen arabera, atzeko karga-sistema eta/edo edukiontziak aldatzeko kutxa irekia duten ibilgailuen bidez. Ibilgailuek trinkotu gabeko hondakinak

biltzeko aukera izan beharko dute, materia organikoaren kasuan bezala, Mankomunitateak hala erabakitzen badu.

Zerbitzu honetan jasotzen den materiala pisatuko da, gutxienez, udalerriz udalerri. Horretarako, esleipendunak, kasuan kasu, tarteko pisaketak egin beharko ditu, hondakinak helmuga-zentroan hustu aurretik, udalerri bakoitzean bildutako kopuruak egoki erregistratuta gera daitezen.

Bilketako ibilgailua betetakoan edo ibilbidea amaitutakoan, hondakinak eramango dira eskakizun teknikoen orriotako 14.1.10 baldintzan zehaztutako instalazioetara. Debekatuta dago kargatutako ibilgailuak bidean edo instalazio finkoetatik kanpo uztea.

Bilketa-ibilbidea amaitutakoan, ibilgailu guztiak zerbitzuari atxikitako instalazio finkoetan aparkatuko dira.

Zerbitzua urteko egun guztietan eskainiko da (abuztuan eta jaiegunetan ere bai).

Lizitatzaileek aurkezten duten zerbitzua eskaintzeko proiektuan zehaztuko dituzte, administrazio baldintza zehatzen orrietako 16. baldintzan ezarritakoa aintzat hartuz, irizpide horiek bete ahal izateko zerbitzu bakoitzarentzat egiten duten proposamena, adieraziz: giza baliabide eta bitarteko materialen antolamendua, edukiontzi aldaketak, ibilbideak, ordutegiak...

5. eranskinean ibilgailuak erabiltzeko programazio-proposamena deskribatzen da.

9. HONDAKINAK ATEZ ATE BILTZEA KOMERTZIOETAN, ZERBITZUETAN ETA OSTALARITZAN

Zerbitzu honetan sartzen da komertzioetan, zerbitzuetan eta ostalaritzan sortutako honako bost hondakin hauek bereiztuta bildu eta garraiatzea, betiere eskakizun teknikoen orriotan (edo dagokion ordenantza arautzailean) zehazten den bezala entregatzen badira:

- Papera eta kartoia.
- Hondakin organikoak.
- Ontzi arinak.
- Plastikozko, egurrezko eta poliespanezko kaxak.
- Errefusa: birziklatu edo balorizatu ezin direnak, "arriskutsu" kalifikazioa ez dutenak eta dituzten ezaugarrien edo konposizioaren arabera etxebizitzetan sortzen direnen antzekoak direnak.

Bilketa honen aplikazio-eremuak merkataritza-, zerbitzu- eta ostalaritza-establezimendu guztiei eragingo die, baita ikastetxeei eta administrazio publikoari ere (anbulatorioak, zaharren egoitzak, liburutegiak, enplegu-bulegoak), honako salbuespen hauekin:

- Aiako merkataritza-, zerbitzu- eta ostalaritza-establezimenduak, hondakinak kaleko edukiontzietan jartzen dituztenak.
- Atez ateko ontzi arinak Zarauzko malekoiko eta Getariako erdiguneko eta portuko merkataritza-, zerbitzu- eta ostalaritza-establezimenduetan bakarrik biltzen dira.

6. eranskinean, atez ateko bilketarako zerbitzuaren erabiltzaileen zerrenda, establezimendu bakoitzean bildu beharreko hondakin-mota eta frakzio bakoitzerako ezarritako bilketa-maiztasuna jasotzen dira.

7. eranskinean, atez ateko bilketarako zerbitzuaren erabiltzaileen zerrenda, establezimendu bakoitzean bildu beharreko hondakin-mota eta Zarauzko malekoiko eta Getariako erdiguneko eta portuko saltokietako, zerbitzuetako eta ostalaritzako frakzio bakoitzerako ezarritako bilketa-maiztasuna jasotzen dira.

6. eta 7. eranskinetako erabiltzaileen zerrenda ezin izango da inola ere harreman mugatzailetzat hartu, zerbitzuaren prestazio-eremuari, artatu beharreko erabiltzaile-kopuruari eta hustu beharreko edukiontzi-kopuruari dagokienez.

Lizitatzaileek, eskaintzetan, hobekien egokitzen den bilketa-egutegia proposatuko dute ezarritako hustuketa-maiztasunera, artatu beharreko hiriguneen berezitasunetara eta aurreikusitako bilketa-ekipamendura. Lizitatzaileak proposatutako bilketa-egutegia Mankomunitateko zerbitzu teknikoek onartu beharko dute, eta

zorrotz errespetatuko da. **5. eranskinean** ibilgailuak erabiltzeko programazio-proposamena deskribatzen da. Zerrenda horrek ez du mugatzen, inola ere, zerbitzua eskaintzeko eremua, erabiltzaile kopurua edo hustu beharreko edukiontzien kopurua.

Lizitatzaileak kuboak eta edukiontziak bildu, garraiatu eta erabiltzaileei banatuko dizkie, Mankomunitateak horri buruz ezartzen duenaren arabera.

Bilketa-zerbitzua astelehenetik igandera izango da, kasu bakoitzean ezartzen den egutegiarekin eta ordutegiarekin, eguneko ordutegian, inoiz ez goizeko 10: 00ak baino lehen.

Erabiltzaile bakoitzak berari izendatutako edukiontziak erabiliko ditu soilik eta bere lokalaren barruan egongo dira.

Erabiltzaileak edukiontzia aterako du bilketa egiten den egunean eta utziko du beren lokalaren sarrerako atearen ondoan, kamioiarentzat iristeko moduan.

Hondakinak oro har atez ate jasoko zaizkio jarduera edo establezimendu bakoitzari, betiere ibilgailuak bilketa puntura iristeko oztoporik ez baldin badu. Edukiontzi edo ontzia hustu ondoren bere lekuan utziko da atzera.

Erabiltzaileek bilketa zerbitzuari hondakinak euskarri hauetan entregatuko dizkiote: 40 litroko edukierako polietilenozko ontziak; 240, 360 eta 1.000 litroko edukierako polietilenozko edukiontzi normalizatuak sorgailu bakoitzari emandako gurpilez hornituak. Papera eta kartoia kaxetan atera ahal izango dute, edo sokaz edo antzekoekin lotuta.

Bilketa-taldeak edukiontzi bakoitzaren edukia egiaztatuko du eta baztertu egingo du, eta ez du hustuko onargarriak ez diren hondakinak detektatzen direnean. Gorabeheraren berri emango die Mankomunitateko zerbitzu teknikoei, dagokion argazkiarekin. Era berean, edukiontzian identifikazio-pegatina bat jarriko du, eta bertan adieraziko du inpropioen presentzia dela-eta ez dela edukiontzia jaso. Informazioa jasotakoan, Mankomunitateko zerbitzu teknikoak kontaktuan jarriko dira edukiontzirik bildu ez den establezimenduarekin, gorabeheraren berri emateko.

Bilketako ibilgailua betetakoan edo ibilbidea amaitutakoan, hondakinak eramango dira eskakizun teknikoen orriotako 14.1.10 baldintzan zehaztutako instalazioetara. Debekatuta dago kargatutako ibilgailuak bidean edo instalazio finkoetatik kanpo uztea.

Bilketa-ibilbidea amaitutakoan, ibilgailu guztiak zerbitzuari atxikitako instalazio finkoetan aparkatuko dira.

Zerbitzu honetan jasotzen den materiala pisatuko da, gutxienez, udalerriz udalerri. Horretarako, esleipendunak, kasuan kasu, tarteko pisaketak egin beharko ditu, hondakinak helmuga-zentroan hustu aurretik, udalerri bakoitzean bildutako kopuruak egoki erregistratuta gera daitezen.

Hala erabakitzen den kasuetan, industria jakin batzuk sartu ahal izango dira saltokiak biltzeko gune eta ibilbideetan edo etxeko hondakinen bilketan. Era berean, saltoki edo zerbitzu jakin batzuk sartu ahal izango dira etxeko edo industriako hondakinak biltzeko gune eta ibilbideetan.

Zerbitzua burutzeko erabiliko dira, batez ere, atzetik zamatzeko sistemak dituzten ibilgailuak eta laguntzeko ibilgailu sateliteak.

Plastikozko, egurrezko eta poliespanezko kaxen bilketari, Zarauzko malekoiaren bilketari, alde zaharrari eta Getariako portuari dagokienez, bilketa bi eta hiru zatitan banatutako kamioiekin egingo da.

Hondakin kopuru handia ekoizten duelako, erabiltzaile batek eskatzen badu hondakin hori eskakizun teknikoen orriotan zehaztu baino maizago biltzeko, kontratistak, horri erantzuteko beharrezkoa baldin bada, egutegia egokitu eta maiztasuna handitu egingo du, esleitzeko prezioa inola ere aldatu gabe.

Esleipendunak aurreikusi egin behar ditu, halaber, hondakin sorrera handieneko epealdietan zerbitzuak indartzeko neurriak.

Lizitatzaileek aurkezten duten zerbitzua eskaintzeko proiektuan zehaztuko dituzte, administrazio baldintza zehatzen orrietako 16. baldintzan ezarritakoa aintzat hartuz, irizpide horiek bete ahal izateko zerbitzu bakoitzarentzat egiten duten proposamena, adieraziz: giza baliabide eta bitarteko materialen antolamendua, edukiontzi aldaketak, ibilbideak, ordutegiak...

10. HONDAKINAK GAIKA ATEZ ATE BILTZEA INDUSTRIAN

Zerbitzu honetan sartzen da poligono eta industria eremuetan sortutako honako sei hondakin hauek bereiztuta bildu eta garraiatzea, betiere eskakizun teknikoen orriotan (edo dagokion ordenantza arautzailean) zehazten den bezala entregatzen badira:

- Papera eta kartoia.
- Egur hondakinak.
- Hondakin organikoak.
- Ontzi arinak.
- Plastiko film hondakinak.
- Errefusa: birziklatu edo balorizatu ezin direnak, "arriskutsu" kalifikazioa ez dutenak eta dituzten ezaugarrien edo konposizioaren arabera etxebizitzetan, merkataritza establezimenduetan, erakundeetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortzen direnen antzekoak direnak. Hondakin horiek zabortegira bideratuko dira.

Zerbitzu honetatik baztertuta geratzen dira hondakin hauek:

- Indarrean dagoen araubideak "hondakin arriskutsu" gisa kalifikatzen dituenak.
- Obra eta konponketatan sortutako obra zabor eta hondakinak.
- Industriako makinak, erremintak, lehengaiak eta merkaturatu gabeko amaitutako produktuak.
- Berariaz industriako ekoizpen prozesuetan sortutako hondakinak, ez direnak etxebizitzetan, merkataritza establezimenduetan, erakundeetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortzen direnen antzekoak edo baliokideak.
- Sektore mailako araubide zehatz batek arautzen dituen hondakinak, ingurumen, segurtasun eta osasunaren aldetik kudeaketa baldintza eta eskakizun bereziak dituztenak, hiri hondakinenak ez bezalakoak, hala nola, besteak beste: pneumatikoak, osasun arloko hondakinak, hondakin erradioaktiboak, animalia jatorriko hondakinak, abeltzaintzako hondakinak...

Horiez gain, bilketa zerbitzu honetan ez dira onartuko ezaugarri hauek dituzten hondakinak:

- %65 baino hezetasun handiagoa duten hondakinak.
- Hauts-itxurako edo lohi itxurako hondakin solidoak, kutsadura edo toxikotasun arriskua baldin badute.
- Su egoeran dauden hondakinak.
- Une horretako eguratsaren tenperatura baino 10ºC gehiago dituzten hondakinak.
- Ezaugarri bereziko hondakinak, hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuari edo balorizatzeko/desagerrarazteko sistemari gorabehera esanguratsuak eragin badiezazkioke. Kasu horretan Udal Elkarteak ekoizle edo erabiltzailea derrigortu ahal izango du hondakina jaso aurretik beharrezko neurriak hartzera, ahal den neurrian oztopo diren ezaugarri horiek desagertzeko edo murrizteko eta utzi behar diren lekuan egoki uzteko. Horrez gain, ekoizle edo erabiltzailea derrigortu ahal izango du hondakin hori bere kabuz kudeatzera, horretarako arrazoiak baldin badaude.

8. eranskinean dago zehaztuta zerbitzuaren erabiltzaileen zerrenda, enpresa bakoitzean jaso beharreko hondakinak eta frakzio bakoitzarentzat ezarritako bilketa maiztasuna.

Zerrenda horrek ez du mugatzen, inola ere, zerbitzua eskaintzeko eremua, erabiltzaile kopurua edo hustu beharreko edukiontzien kopurua.

Bilketa zerbitzu hau aplikatuko da zerbitzuak hartzen dituen lurralde eremuko industria jarduera guztietan.

Lizitatzaileek beren eskaintzan proposatuko dute bilketa zerbitzuaren egutegia, kontuan hartuz ezarritako bilketen maiztasuna, zerbitzua jasoko duten poligono eta industria eremuen ezaugarriak eta bilketarako aurreikusitako ekipoa. Lizitatzaileak proposatu eta Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek onartutako egutegia zehatz mehatz beteko da. Bilketa zerbitzua jaiegunari baldin badagokio, aurreko edo ondoko lehen lanegunera pasako da, Udal Elkarteko zerbitzuko teknikoek agintzen dutenaren argitara.

5. eranskinean ibilgailuak erabiltzeko programazio-proposamena deskribatzen da.

Halaber, esleipendunak erabiltzaileei, kasuan kasu, edukiontziak entregatu, hartu eta garraiatuko dizkie, Udal Elkarteak horri buruz erabakitzen duenaren arabera.

Bilketa zerbitzua eskainiko da astelehenetik ostiralera, egunez (inoiz ez goizeko 8:00ak baino lehenago), kasuan kasu erabakitzen den egutegi eta ordutegian. Egutegi eta ordutegi hori Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek onartu beharko dute.

Erabiltzaileen betebeharra izango da edukiontziak bere lokalaren barruan edukitzea. Erabiltzaileak edukiontzia aterako du bilketa egiten den egunaren bezperan edo egunean bertan eta utziko du beren lokalaren sarrerako atearen ondoan, kamioiarentzat iristeko moduan. Hustu ondoren, atzera bere lekuan utziko da, balaztak jarrita eta estalkia itxita.

Bilketa-zerbitzuak edukiontzi bakoitzaren edukia egiaztatuko du, eta baztertu egingo du, eta ez du hustuko hondakin onartezinak detektatzen direnean, eta gorabeheraren berri emango die Mankomunitateko zerbitzu teknikoei, dagokion argazkiarekin. Era berean, edukiontzian identifikazio-eranskailu bat jarriko du, non adierazten den inpropioen presentzia dela-eta ez dela edukiontzia jaso. Informazioa jasotakoan, Mankomunitateko zerbitzu teknikoak kontaktuan jarriko dira edukiontzirik bildu ez den establezimenduarekin, gorabeheraren berri emateko.

Hala erabakitzen den kasuetan, industria jakin batzuk sartu ahal izango dira saltokiak biltzeko edo etxeko hondakinak biltzeko puntu eta ibilbideetan.

Zerbitzu horrek, oro har, hondakinak atez ate jasoko ditu, jardueraz jarduera.

Erabiltzaile edo hondakin ekoizleei honako baliabideak emango zaizkie, bilketa zerbitzuari hondakinak euskarri horietan entregatzeko: 240, 360, 1.000 eta 3.2000 l. edukierako polietilenozko edukiontzi normalizatuak.

Erabiltzaileek egurra soltean entregatu ahal izango dute, lokalaren sarrerako atearen ondoan utzita, bilketako ibilgailua iristeko moduan; papera/kartoia, berriz, kaxetan edo soka edo antzeko zerbaitekin lotuta utzi ahal izango dute, betiere aldez aurretik Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen baimena edukiz gero.

Bilketako ibilgailua betetakoan edo ibilbidea amaitutakoan, hondakinak eramango dira eskakizun teknikoen orriotako 14.1.10 baldintzan zehaztutako instalazioetara. Debekatuta dago kargatutako ibilgailuak bidean edo instalazio finkoetatik kanpo uztea.

Bilketa-ibilbidea amaitutakoan, ibilgailu guztiak zerbitzuari atxikitako instalazio finkoetan aparkatuko dira.

Zerbitzu honetan jasotzen den materiala pisatuko da, gutxienez, udalerriz udalerri. Horretarako, esleipendunak, kasuan kasu, tarteko pisaketak egin beharko ditu, hondakinak helmuga-zentroan hustu aurretik, udalerri bakoitzean bildutako kopuruak egoki erregistratuta gera daitezen.

Zerbitzua burutzeko erabiliko dira atzetik zamatzeko sistemak dituzten ibilgailuak.

Lizitatzaileek aurkezten duten zerbitzua eskaintzeko proiektuan zehaztuko dituzte, administrazio baldintza zehatzen orrietako 16. baldintzan ezarritakoa aintzat hartuz, irizpide horiek bete ahal izateko zerbitzu bakoitzarentzat egiten duten proposamena, adieraziz: giza baliabide eta bitarteko materialen antolamendua, edukiontzi aldaketak, ibilbideak, ordutegiak...

11. BESTE BILKETA ZERBITZU BATZUK

11.1. LAGUNTZEKO ETA ERREPASATZEKO ZERBITZUA

Laguntzeko eta errepasatzeko zerbitzua eskainiko da ekarpen gune guztietan, honako hauetarako:

- Batetik, edukiontziak prestatzeko, albotik zamatzeko kamioia iritsi aurretik.
- Bestetik, ekarpen gunearen eragin esparruan edukiontzietatik kanpo dauden hondakinak erretiratzeko.
- Erratza pasatzea eta hondakin guztien (beira-hondarrak barne) ekarpen-eremuaren eragin-eremua garbi uztea.

Zerbitzu hori egingo da hondakinak albotik zamatuta biltzeko goizeko nahiz arratsaldeko txandetan eta kaxa irekiko ibilgailu bat erabiliko da.

Bilketa-taldeak dagozkion edukiontzietan sartu beharko ditu hondakin guztiak. Hondakinaren tamaina edo edukiontziaren betetze-maila dela-eta edukiontzian utzi ezin badira, errepasatzeko zerbitzuak bere ibilgailuan sartu beharko du. Jarduteko irizpide hori Mankomunitateak zehaztuko du.

Bilketa-ibilgailuaren zama osatu ondoren edo, hala badagokio, bilketa-ibilbidea amaitu ondoren, hondakinak atzeko kargako ibilgailu bati eskualdatuko zaizkio kontratuari atxikitako instalazio finkoetan, eta debekatuta egongo da kargatutako ibilgailuak bide publikoan aparkatzea, ezta finkaturiko instalazioetatik kanpo aparkatzea ere plegu honen 14.1.10 klausulan adierazitako instalazioez arduratzen diren langileek emandako hondakinak eta/edo bereizte-lanak bereizita entregatzeaz arduratuko da (ezingo dira hondakinak iraulketan deskargatu).

Bilketa-ibilbidea amaitutakoan, ibilgailu guztiak zerbitzuari atxikitako instalazio finkoetan aparkatuko dira.

Zerbitzua eskainiko da urteko egun guztietan (abuztuan eta jaiegunetan ere bai).

5. eranskinean deskribatzen da ibilgailuak erabiltzeko programazio-proposamena.

Lizitatzaileek aurkezten duten zerbitzua eskaintzeko proiektuan zehaztuko dute, administrazio baldintza zehatzen orrietako 16. baldintzan ezarritakoa aintzat hartuz, zerbitzu honetarako egiten duten proposamena, adieraziz: giza baliabide eta bitarteko materialen antolamendua, ibilbideak, ordutegiak...

11.2. BEREIZTUTA BILTZEA KALEAN ETA GARRAIATZEA: ALTZARIAK, APARAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOAK (RAEE) ETA BESTE HONDAKIN HANDI BATZUK

Bereiztuta utzi eta bilduko dira aparailu elektriko eta elektronikoen hondakinak (RAEE) eta erabili ezin diren bestelako hondakin handiak, herritar edo erabiltzaileek etxeko altzari edo ekipamenduetan egindako aldaketa edo ordezkapenen ondorioz abandonatzen dituztenak.

Erabiltzaileek hondakin handiak edukiontzien ekarpen guneetan utziko dituzte, bilketa egunaren bezperan, aurrez onartzen den bilketa-egutegiaren arabera (bilketa egutegia **9. eranskinean** dago zehaztuta).

Zerbitzua urte osoan emango da, abuztua eta jaiegunak barne.

Esleipendunak hondakin handiak egunez bilduko ditu eta bere betebeharra izango da hondakinak bereiztuta entregatzea edo/eta bereizteko lanak egitea (hondakinak ezingo dira deskargatu bolketea eginez), eskakizun teknikoen orriotako 14.1.10 baldintzan zehazten diren instalazioetako langileek emandako jarraibideen argitara.

Bilketa-ibilbidea amaitutakoan, ibilgailu guztiak zerbitzuari atxikitako instalazio finkoetan aparkatuko dira.

Mankomunitateko zerbitzu teknikoek unean-unean emango dute hondakinak tresna elektriko eta elektronikoez (RAEE) hornitzeko tokia eta modua, RAEEn Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboek (EISS) ezarritako eskakizunen arabera. Esleipendunak nahitaez bete beharko ditu eskakizun horiek.

Hondakin handiak ezarritako egutegitik kanpo uzten baldin badira, berehala jakinaraziko zaie Udal Elkarteko zerbitzu teknikoei, utzi dituztenek berehala erretira ditzaten. Hondakin horiek zeinek utzi dituen jakiterik ez badago, esleipendunak erretiratuko ditu, Udal Elkarteak zehazten duen epearen barruan, kokapenaren eta oinezkoei nahiz ibilgailuei eragin diezazkieten oztopo eta arriskuak kontuan hartuta.

Esleipendunak kontu handiz ibili beharko du zerbitzua gauzatzerakoan, eta bertan utzitako tamaina handiko hondakin guztiak kendu beharko ditu, horien zatiak barne, eta puntua hondarrik edo alferrik galdu gabe utzi beharko du, eta, beharrezkoa izanez gero, ekarpen-eremua garbitu beharko du. Esleipendunak, gainera, behar diren neurriak hartuko ditu bilketa-ibilbidean eta garraioan hondakinak isurtzea saihesteko. Isuriren bat gertatuz gero, bilketa-taldeak berehala kendu beharko du bere kabuz.

Hondakin elektriko eta elektronikoak bildu eta deskargatzeko lanak arretaz egingo dira, hondakin horiek haustea ekidin eta balorizatzea errazteko.

Horrez gain, une zehatzetan Udal Elkarteak esleipendunari agindu ahal izango dio Garbiguneetatik edo tarteko beste puntu batzuetatik hondakin handiak jasotzeko, kontratuaren prezioa aldatu gabe.

Lizitatzaileek aurkezten duten zerbitzua eskaintzeko proiektuan zehaztuko dute, administrazio baldintza zehatzen orrietako 16. baldintzan ezarritakoa aintzat hartuz, zerbitzu honetarako egiten duten proposamena, adieraziz: giza baliabide eta bitarteko materialen antolamendua, ibilbideak, ordutegiak...

11.3. GAIKA BILTZEA ERABILITAKO PILAK

Esleipendunaren betebeharra izango da eskualdeko 5 udalerrietako kaleko edukiontzien bidez eta establezimenduetan jarritako edukiontzien bidez jasotako erabilitako pilak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzea. **10. eranskinean** dago zehaztuta pilak jasotzeko gaur egungo puntuen zerrenda.

Esleipendunaren betebeharra izango da pilak biltzeko 30-40 litro inguruko edukierako edukiontzi normalizatuak kalean jartzea (adierazten zaizkion puntuetan).

Zerbitzua eskaintzen hasteko unean jarrita dauden edukiontziak erabili egingo dira.

Halaber, esleipendunaren betebeharra izango da mahai gaineko 20 litroko edukiontzi monomaterialak hornitu eta jartzea merkataritza-establezimendu, bulego eta antzekoetan, aurrez Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoei eskaria egin badiete.

Esleipenduna edukiontzi eta ontziak hustera bertaratuko da, gutxienez, hilean behin.

Esleipendunak edukiontzietako materialak (izaera edo osaera edozein dela ere) bildu eta garraiatuko ditu eta hustuko Udal Elkarteak adierazten duen erabilitako pilen helmuga-zentroan. Une honetan pilak eraman behar dira 14.1.10 baldintzan zehaztutako instalazioan.

Lizitatzaileek aurkezten duten zerbitzua eskaintzeko proiektuan zehaztuko dute, administrazio baldintza zehatzen orrietako 16. baldintzan ezarritakoa aintzat hartuz, zerbitzu honetarako egiten duten proposamena, adieraziz: giza baliabide eta bitarteko materialen antolamendua, ibilbideak, ordutegiak...

11.4. BEREIZTUTA BILTZEA ETA GARRAIATZEA UDAL AZOKA, AZOKA IBILTARI ETA GISA BEREKOETAN SORTUTAKO HONDAKINAK

Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten udalerrietan egunero nahiz astero egiten diren azoketan nahiz bestelako ezohiko azoketan sortzen diren hondakinak bereiztuta jasoko dira. Gutxienez frakzio hauek jasoko dira bereizita:

- Papera eta kartoia
- Hondakin organikoak
- Ontziak
- Plastikozko, egurrezko eta poliespanezko kaxak
- Errefusa, birziklatu ezin dena

Kontratari dagokio 120, 360 edo 1.000 litroko atzeko kargako edukiontziak banatzea eta sortzaileen eskura jartzea, merkatua egiten den bakoitzean, eta merkatua ireki aurretik.

Sortzen diren hondakinak sortzaileek utziko dituzte edukiontzietan, bereiztuta, eta, beraz, azoka amaitzen denean, azokako postuetan eta horien ondoan ez da hondakinik geratuko.

Esleipendunaren egitekoa izango da edukiontziak hustu, garbitu eta biltegira eramatea (udal biltegira, Udal Elkartearen biltegira edo esleipendunaren instalazioetara). Nolanahi ere den, esleipendunak bermatu behar du hurrengo azoka egunaren aurretik edukiontziak hustuta, garbi eta erabiltzeko egoera egokian daudela.

11. eranskinean dago zehaztuta Udal Elkartearen eremuko ohiko azoken gaur egungo egutegia.

Esleipendunak azoketako zerbitzuaren egutegia egokitu egingo du, azoka eguna jaieguna delako aldatu egiten bada.

Halaber, esleipendunak aurreikusi egingo ditu ezohiko azoka egunetan eta gisa bereko beste ekitaldi batzuetan zerbitzua indartzeko neurriak.

Lizitatzaileek aurkezten duten zerbitzua eskaintzeko proiektuan zehaztuko dute, administrazio baldintza zehatzen orrietako 16. baldintzan ezarritakoa aintzat hartuz, zerbitzu honetarako egiten duten proposamena, adieraziz: giza baliabide eta bitarteko materialen antolamendua, ibilbideak, ordutegiak... **5. eranskinean** ibilgailuak erabiltzeko programazio-proposamena deskribatzen da.

11.5. BEREIZTUTA BILTZEA ETA GARRAIATZEA JAI ETA EKITALDIETAN SORTUTAKO HONDAKINAK

Esleipendunak aparteko edukiontziak jarriko ditu, udalak zehazten dituen beharren eta Udal Elkarteak ematen dizkion jarraibideen arabera, sortutako hondakinen kopurua nabarmen handitzea ekar dezaketen ekitaldietan, besteak beste: herrietako jaiak, ekitaldi publikoak, txosnak, kaleko kontzertu eta dantzaldiak, kirol, kultura edo politika arloko ekitaldi edo emankizunak (Txakolin Eguna, Olagarro Eguna, Euskal Jaiak, Artisau Azoka, Gabonetako azoka...):

a. Herritarrek eta partehartzaileek erabiltzeko edukiontziak. Bereiztuta jasoko dira, gutxienez, frakzio hauek:

   - Papera eta kartoia
   - Hondakin organikoak
   - Ontziak
   - Egurrezko, plastikozko eta poliespanezko kaxak
   - Beira
   - Errefusa, birziklatu ezin dena

b. Kaleak garbitzeko zerbitzu berezientzako edukiontziak. Edukiontzi horiek erabiliko dituzte soilik kale garbiketako zerbitzuek.

Edukiontzi horiek egunean 3 aldiz hustuko ditu esleipendunak (goizean , eguerdian eta gauean) gehienez, beharraren arabera (Udal Elkarteko Ingurumen Sailak zehazten duenaren arabera).

Gaur egun atzetik zamatzeko sistemaren bidez egiten da bilketa. Esleipendunaren egitekoa izango da ekitaldia amaitu ondoren edukiontziak kaletik erretiratzea.

12. eranskinean dago zehaztuta Udal Elkartearen eremuko ospakizun eta ekitaldien gaur egungo egutegia.

Atal honetan xedatutakoa beteko da, halaber, ezusteko eta ezohiko kasuetan (larrialdietan eta antzekoetan). Kasu horietan esleipendunaren betebeharra izango da behar diren edukiontziak jartzea eta biltzeko maiztasuna handitzea, Udal Elkarteak emandako jarraibideak betez.

Esleipendunaren betebeharra izango da gutxienez gorago deskribatutako zerbitzua eskaintzea, hala nola: edukiontziak jarri eta erretiratzea, eguna edozein dela ere (astelehenetik igandera), eskualdean egiten diren ekitaldi eta jai guztietan eta, oro har, sortutako hondakinen kopurua nabarmen haztea dakarren egoera orotan.

Dena dela, hondakinak bildu eta garraiatzeko lanak esleipendunak egingo dituenez, esleipendunaren betebeharra da Udal Elkarteari idatziz jakinaraztea edukiontzi eta bilketa puntuen kokapenak edo horietara iristeko egin beharreko maniobrek herritarrentzat edo esleipendunaren langileentzat (kontratuari dagozkion lanak egiten ari direla) sor ditzaketen segurtasun arriskuak. Kasu horretan esleipendunak dena delako edukiontzi edo bilketa puntua beste leku batera aldatzeko proposamena egingo du eta Udal Elkarteak egoki iritzitako erabakia hartuko du.

Esleipendunak ez badu idatziz ezer jakinarazten, Udal Elkarteak ulertuko du indarrean dauden kokapenetan ez dagoela segurtasun arriskurik bilketa lanak egiteko.

Udal Elkarteak lan prozedura zehatza ezarri ahal izango du bilketa puntu jakin batzuetan arriskuak ekiditeko.

14.1.10. Hondakinak entregatzeko zentroak

Abiapuntu gisa, bildutako hondakinak instalazio hauetan entregatuko dira:

Papera eta kartoia (etxe, komertzio eta industrialdeetakoa):
Helmuga: Adunako Uparan 2 poligonoan dagoen Arregui Etxabe Juan Jose SAren berreskuratze biltegia.

Ontzi arinak:
Helmuga: Legazpiko Aizurrizaga poligonoan dagoen Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.ren ontzi arinak bereizteko instalazioa.

Hondakin organikoak:
Helmuga: Gipuzkoako ingurumen gunea, Donostiako Arrapide pasealekua, Gipuzkoa.

Plastikozko, egurrezko eta poliespanezko kaxak:
Helmuga: Zumaiako garbigunea, Joxe Mari Korta industrialdean kokatua.

Etxeko, merkataritzako eta industriako errefusa frakzioa edo errefusa birziklagarria:
Helmuga: Gipuzkoako ingurumen-konplexua, Donostiako Arrapide pasealekua

Industrialdeetako egurra eta egur hondakinak:
Helmuga: Urnietako Oztaran auzoko 27. zenbakian dagoen Arregui Etxabe Juan José SAren berreskuratze biltegia.

Etxeetako tresnen hondakinak:
Helmuga: Urola Kostako Udal Elkartearen sailkapen eremua, Zarauzko Urteta zabortegia.

Aparailu elektriko eta elektronikoen hondakinak (RAEE) eta birzikla daitezkeen etxeetako hondakin ferriko handiak:
Helmuga: Urola Kostako Udal Elkartearen sailkapen eremua, Zarauzko Urteta zabortegia.

Pila hondakinak:
Helmuga: Urola Kostako Udal Elkartearen sailkapen eremua, Zarauzko Urteta zabortegia.

Esleipendunaren langileek helmuga instalazioetako langileen jarraibideak beteko dituzte une oroz, besteak beste honako hauei buruzkoak: entregatzen diren hondakinen egiaztapena, pisaketa, deskargatzeko lekua, egin beharreko maniobrak eta bestelako aginduak. halaber, kontratistaren langileek beteko dituzte segurtasun eta lan arriskuak prebenitzeko arauak eta instalazioen funtzionamenduari buruzko arauak (zama-lanak egiteko egutegia, ordutegia eta abar).

Zentro horietan ordutegia edo funtzionamendu arauak aldatzen badira esleipendunak ez du inolako diru-ordainik jasoko, eta egoera berrira egokitu egin beharko du kontratuaren prezioa aldatu gabe.

Materialak garraiatu, pisatu eta helmuga-zentroan husteko lanak egingo dira materialak bildu eta berehala. Debekatuta dago bildu eta hustu bitartean biltegiratzea, Udal Elkarteak berariaz hori egiteko baimena eman ezean.

Kontratua indarrean dela, Udal Elkarteak esleipendunari agindu ahal izango dio hondakinak beste instalazio batean deskargatzeko. Aldaketa horren ondorioz esleipendunak ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du soilik instalazio hori Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremutik kanpo baldin badago eta, gainera, 60 kilometro baino distantzia handiagora baldin badago (Udal Elkartearen egoitza nagusitik hasita (Urdaneta bidea 6, Abendaño, Zarautz). Horrela baldin bada, kontratuan aurreikusitako aldaketei buruzko administrazio baldintza zehatzen 14. baldintzan ezarritakoa hartuko da aintzat. Esleipendunak Udal Elkarteak aurrez finkatutako helmugara eraman ordez beste leku batera eramateko proposamena egin ahal izango du. Nolanahi ere den, proposamena Udal Elkarteak berariaz onartu beharko du.

14.2. LAN OSAGARRIAK

14.2.1. Galdutako objektuak bilatzea

Esleipendunak bildutako hondakinen artean balioa duten objektuak aurkitzen baditu, Udal Elkartearen esku utziko ditu, beren jabeak direla egiaztatzen dutenei itzultzeko.

Erabiltzaile batek adierazten badu edukiontzi baten barruan balioa duen objektu bat galdu zaiola edo erratu eta bere ontzi edo poltsan utzi duela, esleipendunak honako lanak (batzuk edo denak) egingo ditu, Udal Elkarteak ematen dizkion jarraibideen argitara (lan horiek sartuta egongo dira kontratuaren esleipen prezioan):

a. Erabiltzailearekin hitzordua jarri, edukiontzia dagoen lekura joan eta galdutako objektua berreskuratzen saiatu: kako, pintza eta antzekoekin ateratzen saiatu edo edukiontziaren ateak ireki eta poltsak eta materialak kanpora atera, beharrezkoa bada. Bilatzen amaitutakoan, ateratako poltsa eta materialak atzera edukiontzian sartu eta ateak itxiko ditu esleipendunaren langileak.

b. Edukiontzia eraman Udal Elkarteak adierazten duen lekura (Udal Elkartearen lurralde eremuaren barruan), edukia lurrera hustu eta galdutako objektua eskuz bilatu. Jarraian, esleipendunak materialak atzera edukiontzian sartuko ditu, eremua garbi-garbi utziko du eta edukiontzia bere lekura eraman eta bere lekuan jarriko du.

c. Hondakinak biltzeko kamioia helmuga zentroan hustu, ezarritako ordu batean, beste materialetatik bereiztuta, objektua galdu duen erabiltzaileak galdutako hori errazago bila dezan.

Gorago adierazitako betebehar horiek burutu beharko dira lur gaineko nahiz lurpeko edukiontziekin.

14.2.2. Bilketa ibilgailuen mantentze-lanak, konponketak eta garbiketa

Kontratuari atxikitzen zaion ibilgailu bakoitzak mantentze-lan prebentiboen plangintza bat izango du, Udal Elkarteari aurkeztuko zaiona. Mantentze-lan prebentiboen plangintza horretan sartuta egongo dira, gutxienez, legeak eskatzen dituenak: ibilgailuen azterketa teknikoa, industriako aldian aldiko azterketak...

Halaber, esleipendunaren betebeharra da ibilgailuei beharrezko konponketak egitea, (matxurak, istripuak...) ondo funtzionatzeko, eta bermatzea kanpotik zein barrutik garbi eta txukun egongo direla kontratuaren

objektu diren zerbitzuak eskaintzen ari direnean. Konponketak egiteari lotutako gastuak kontratistak ordainduko ditu.

Esleipendunak behar adina aldiz garbituko ditu ibilgailuak. Garbitzeko lanak egingo dira tona askoko ibilgailu handiak garbitzeko behar bezala hornituta dauden instalazioetan.

Esleipendunari dagozkio ibilgailuak garbitzeko instalazioetara garraiatzeko gastuak, instalazio horiek alokatzeko gastuak edo garbitzeak eragindako bestelako gastu guztiak.

14.2.3. Edukiontziak garbitu eta desinfektatzea

Edukiontzi guztien egoera higienikoa eta itxura estetikoa behar bezalakoa dela bermatzeko, esleipendunaren betebeharra da kalean jarritako edukiontzi guztiak sakon garbitu eta desinfektatzea.

Erabiltzaileek beraiek garbituko dituzte beraiei banatutako edukiontziak (dendak, zerbitzuak eta industrialdeak). Mankomunitateak atez ateko bilketaren erabiltzaileren baten edukiontziak garbitzeko eskatu ahal izango du.

Edukiontziak garbitzeko ohiko lanak egingo dira "in situ", hau da, edukiontzia dagoen tokian bertan. Horretarako, beharrezko segurtasun neurri guztiak hartuko dira, garbitzeko lanek edo garbitzeko ibilgailua edukiontziaren inguruan aparkatzeak pertsona edo ondasunei eragozpenik ez sortzeko.

Edukiontziak garbitzeko lanetan honakoak sartzen dira:

- **KANPOTIK GARBITZEA, ESKUZ:**

Edukiontziak kanpotik eskuz garbitzeko prozedura orokor honi jarraituko zaio:

a. Lehendabizi, edukiontziari itsatsita dauden osagai arrotzak kenduko dira eskuz (kartelak, zinta itsaskorrak, pegatinak...).

b. Ondoren, edukiontziaren kanpoko azalera garbikari eraginkor batekin lainoztatuko da. Garbigarri hori dosifikatuko da egileak aholkatutako kontzentrazio mailan, biodegradagarria izango da (gutxienez %90), izango ditu hezetzeko ahalmen handiko tentsioaktiboak, grasaren emultsionatzaileak eta uraren gogortasunaren bahitzaileak; eta, apar kopuru txikia sortuko du.

c. Amaitzeko, edukiontziaren kanpoko azalera urez (hotz edo beroa) garbituko da, langileek eskuz erabiliko duten presio altuko lantza edo pistola baten bidez.

Garbitzeko lanak amaitu ondoren, edukiontziaren kanpoko azalera zikinkeriarik batere gabe geldituko da.

Atzetik zamatzen diren edukiontzien kasuan, kanpotik eskuz garbitzeko lanetan estalkiaren barrualdea ere garbitu egingo da.

Lurpeko edukiontzien kasuan, eskuz garbitzeko lanetan honako lan hauek sartzen dira: kanpotik garbitzea (arreta bereziarekin ahoa eta kanpoko plataforma), barrutik garbitzea (edukiontziaren barrualdea, hondakinak hartzen dituena, eta plataforma) eta, orobat, kanpoan zein barruan dauden eta zikinak dauden osagai guztiak garbitzea, arrazoia edozein dela ere pilatu diren hondar solidoak barne.

Garbitzeko lanak egiteko erabiltzen diren prozedura eta garbigarriak erabiltzeko, aurrez, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen baimena jaso behar du esleipendunak. Zerbitzu tekniko horiek, lortutako garbitasun maila kontuan hartuta, jarraibide eta agindu zehatzak eman ahal izango dituzte, eta esleipendunak agindu eta jarraibide horiek bete egin beharko ditu. Horretarako, esleipendunak froga praktiko bat egin beharko du Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen aurrean, zerbitzua eskaintzen hasi aurretik, edukiontzi kopuru txiki batekin, proposatutako garbiketa sistemaren eraginkortasuna neurtzeko.

- **KANPOTIK ETA BARRUTIK GARBITZEA, MAKINAZ:**

Albotik nahiz atzetik zamatzen diren edukiontziak barrutik eta kanpotik era mekanikoan garbitzeko edukiontziak garbitzeko ibilgailu bat erabiliko da, ur hotzarekin edo beroarekin.

Kamioia prestatuta egongo da edukiontziak barrutik nahiz kanpotik garbitzeko. Kasu berezietarako, garbitzeko unitateak behar adinako luzera duen mangera bat eta presio altuko pistola edo lantza bat izango ditu, beharrezkoa bada, garbiketa osatzeko.

Edukiontziak garbitzeko ibilgailuarekin egiten diren garbiketa lanetan, fabrikatzaileak aholkatutako garbiketa-zikloak erabiliko dira. Autobira egiten duten kabezalek eta barredun bokillek ura botako dute presio altuan edukiontziaren barrualdeko pareta guztietara, bertatik bertara, erabat garbitzea lortzeko. Edukiontzia barrutik garbitzeko lanetan edukiontziaren barrualdeko puntu guztiak garbituko dira, estalkia, kubeta, kubetaren alboko azalera, fondoa eta alboen eta fondoaren arteko lotura guneak. Ibilgailuak behin eta berriz errepikatuko du garbiketa zikloa, nahi den garbitasuna lortu arte.

Lurpeko edukiontzien kasuan, kanpotik eta barrutik makinaz garbitzeko lanetan lurpean sartuta dagoen edukiontziaren barrualdea garbituko da.

Edukiontziak garbitzeko gorago finkatu diren gutxieneko maiztasunak horiek izanik ere, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek horrela eskatzen badiote, esleipendunak garbitu egin beharko ditu garbiketa batetik besterako tartean zikinkeria arazo handiak dituzten edukiontziak, esleitzeko prezioa aldatu gabe.

Esleipendunari dagokio edukiontziak garbitzeko ibilgailuak erabiltzen duen ur garbi eta ur zikina eta edukiontzietatik kendutako hondar solidoak kudeatzea.

Edukiontziak garbitzeko lanak koordinatuko dira garbitu behar diren edukiontziak husteko egutegiarekin, garbitzeko unean hutsik egotea bermatzeko.
Kaleko edukiontziak garbitzeko lanak egingo dira, ahal dela, egunez, presio altuko lantzak sor dezakeen zaratak herritarrei ahalik eta eragozpen txikienak sortzeko. Gainerako garbiketa lanetan ordutegia erabakiko da zerbitzuaren beharren arabera.

Hilabetean behin gutxienez, esleipendunak kaleko edukiontzien ekarpen-gune guztien eragin esparruak sakon garbituko ditu (urez, erratzez, hidro garbigailuz...), Udal Elkarteak horretarako ematen dizkion jarraibideak betez.

Hona hemen edukiontziak garbitzeko gutxieneko maiztasunak:

a. Etxeko hondakinak biltzeko edukiontziak, kalean jarrita daudenak, albotik eta atzetik zamatzekoak:

- **URRITIK MAIATZERA (BIAK BARNE, 8 HILABETE):**

  Errefusa biltzeko edukiontziak:
  - Kanpotik eta barrutik garbitu, makinaz: hilean behin
  - Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

  Papera/kartoia biltzeko edukiontziak:
  - Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

  Ontzi arinak biltzeko edukiontziak:
  - Kanpotik eta barrutik garbitu, makinaz: hilean behin
  - Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

  Hondakin organikoak biltzeko edukiontziak:
  - Kanpotik eta barrutik garbitu, makinaz: astean behin
  - Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

  Pilen edukiontziak:

- Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

Beira edukiontziak:
- Kanpotik garbitu, eskuz: 2 hilean behin.

– **EKAINETIK IRAILERA (BIAK BARNE, 4 HILABETE):**

Errefusa biltzeko edukiontziak:
- Kanpotik eta barrutik garbitu, makinaz: Hilean bi (2) aldiz.
- Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

Papera/kartoia biltzeko edukiontziak:
- Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

Ontzi arinak biltzeko edukiontziak:
- Kanpotik eta barrutik garbitu, makinaz: hilean behin
- Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin

Hondakin organikoak biltzeko edukiontziak:
- Kanpotik eta barrutik garbitu, makinaz: astean behin.
- Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

Pilen edukiontziak:
- Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin

Beira edukiontziak:
- Kanpotik garbitu, eskuz: hilean behin.

b. Azoka, festa eta ekitaldietako hondakinak biltzeko edukiontziak, atzetik zamatzekoak:

Kanpotik eta barrutik garbitu, makinaz, eta, osagarri gisa, kanpotik eskuz, azoka, jai edo ekitaldia egiten den bakoitzean. Nolanahi ere den, edukiontziak garbituta eta prest egongo dira erabiltzeko, azoka, jai edo ekitaldia egin aurretik, behar adinako aurrerapenaz.

14.2.4. Edukiontziak eta ontziak mantentzeko, zaintzeko eta konpontzeko lanak

a. Kaleko edukiontziak

Zerbitzuaren enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da honako hauen mantentze prebentibo eta zuzentzaileko lanak antolatzea eta gauzatzea:

- Une bakoitzean bide publikoan jarrita dauden erabilera kolektiboko edukiontziak, hiriguneetan edo eremu sakabanatuetan.
- Erabilera kolektiboko edukiontzi jakin batzuen azpian jarritako edukiontziak zentratzeko gidak.
- Alboko kargako eta atzeko kargako edukiontzi batzuetan instalatutako iraultzeen kontrako euste-sistemak.
- Errefusa, materia organikoa eta lurpeko edukiontzietako postontzietan une bakoitzean instalatutako sarraila elektronikoak.
- Une bakoitzean edukiontzietan jarritako sarraila mekanikoak.
- Edukiontzietan instalatutako estalkien blokeo motak.
- Unean-unean saltoki, zerbitzu eta erakundeetara bideratzen diren banakako erabilerako kuboak eta edukiontziak.
- Unean-unean mankomunitateko garbiguneetan jarrita dauden edukiontziak.
- Une bakoitzean dauden edukiontziak lurperatzeko puntuak barnean hartzen dituzten upelak (taparik gabeko edukiontziak).
- Ekitaldi berezietan erabiltzen diren edukiontziak (jaiegunak, kulturalak, kiroletakoak...).
- Une bakoitzean industrietara bideratzen diren edukiontziak.
- Unean-unean instalatu dituen sarraila elektronikoetan bizitza baliagarriaren amaierara iristen diren edo

agortzen diren pilak edo bateriak erostea eta ordeztea, sarrailen fabrikatzaileak gomendatutako pilak edo bateriak erabiliz.

Enpresa esleipendunak ematen duen mantentze prebentibo eta zuzentzailearen zerbitzuak bermatu beharko du goian aipatutako bitarteko materialak egoera onean daudela uneoro.

Horretarako, enpresa esleipendunak mantentze-programa bat ezarriko du kuboen, edukiontzien eta horiekin lotutako beste elementu batzuen (zentradoreak, sarraila mekanikoak eta elektronikoak, blokeoak, pilak eta bateriak, etab.) aldizkako mantentze orokorrerako, mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaile guztiak zehaztuta.

Mantentze-lanek honako hauek jasoko dituzte gutxienez:

1. Agiri honetan ezarritako edozein motatako kuboen eta edukiontzien egoera funtzionala eta kontserbaziokoa aldizka berrikustea. Edukiontzien kasuan, lan hauek egingo dira:

- Edukiontzien eta horiek dituzten lurpeko edukiontzietako postontzien sarraila elektronikoa, zamarik gabeko edo karga-maila txikiko pilen edo baterien ordez fabrikatzaileak gomendatutako edo berdinak diren beste batzuk jartzea barne.
- Sarraila mekanikoa alboko eta atzeko karga-edukiontzietan.
- Erabiltzailearen aldeko estalkiaren moteltze-sistema (motelgailua), gainerakoen eta biohondakinen frakziorako alboko karga-edukiontzietan.
- Sarbide-kontrolaren xede den tapa edo tapeta.
- Galtzadaren aldeko estalkia blokeatzeko gailua, alboko karga-edukiontzien eredu guztietan.
- Estalkia blokeatzeko grabitate-sarraila, estalkia duten atzeko kargako edukiontzien kasuan.
- Erabiltzailearen aldeko estalkia irekitzeko pedala, gainerakoen eta materia organikoaren frakziorako alboko karga-edukiontzietan.
- Zentratzailearen gida (zentratzailea).
- Balazta-gailuak aztertzea, hura duten modeloetan.
- Osagai jakin batzuk koipeztatzea, fabrikatzailearen mantentze-eskuliburuaren arabera.

In situ konpondu ezin diren sarraila mekaniko eta elektroniko akastunak berehala ordeztuko dira, eta gehienez ere 24 orduko epean, mankomunitateko zerbitzu teknikoek kontratistari edozein bide erabiliz jakinarazten diotenetik aurrera. Horren ordez, beste sarraila elektroniko berdin bat instalatuko da.

Goian zerrendatutako gainerako funtsezko elementuak, akastunak badira eta in situ konpondu ezin badira, berehala ordeztuko dira beste elementu berdin batzuekin.

2. Jai-, kultura- eta kirol-ekitaldietan erabiltzen diren edukiontzien egoera funtzionala eta kontserbazio-egoera aldizka berrikustea.

3. Atez ateko bilketa-sistemetan erabiltzen diren banakako erabilerako kuboen (heldulekuak, estalkia) egoera funtzionala eta kontserbazio-egoera aldizka berrikustea.

Edukiontzien eta lehen aipatutako gainerako elementuen mantentze-lan arruntak nahitaez in situ egingo dira, hau da, kokatuta dauden puntuan bertan, eta zuhurtasun- eta segurtasun-neurri egokiak hartuko dira mantentze-lanen ondorioz ondasunei edo pertsonei eragozpenik ez eragiteko, mantentze-lanetarako ibilgailua inguruan aparkatzea barne.

Salbuespen gisa, egin beharreko lanen tamainak edo haien kokapenaren arriskugarritasunak hala gomendatzen dutenean, edukiontziaren edo elementu horren ordez prestazio berberak dituen beste bat jarriko da behin-behinean, eta, ondoren, kontratistak kontratistaren instalazio finkoetara edo hitzartutako lantegira eramango du, konpontzeko. Ez da onartuko edukiontzirik kentzea aldi berean ordezkapen-edukiontzia jarri gabe, une oro herritarrentzako zerbitzuaren erabilgarritasuna bermatzeko.

Kontratistak, nahitaez, behar besteko stock bat izango du, kubo-eredu eta instalatutako edukiontzien ordezko piezak (sarraila elektronikoak, pilak eta ordezko bateriak, sarraila mekanikoak, estalkiak, tapetak, motelgailuak, zentradoreak, blokeatzeko gailuak, grabitate-sarrailak, pedalak, buloiak, gurpilak, patinak,

hausteko joera duten edukiontzien zenbait osagai, torlojuak, etab.), bai eta kuboen, edukiontzien eta sarrailen unitate osoak ere.

Ordezko piezen faltak ez du kontratista salbuetsiko ohiko mantentze-lanetan edo edukiontzien edo bestelako elementuen konponketan gerta daitekeen atzerapenaren ondoriozko erantzukizunetik.

Hondatutako edo akastun osagairen bat ordezteko edo konpontzeko erabilitako ordezko piezak jatorrizkoak izango dira beti, hau da, enpresa fabrikatzaileak emango ditu.

Kontratistak erregistro batean jasoko ditu ordezkatutako elementu guztiak, ordezteko arrazoiak, egindako konponketa-ekintzak edo ordezteko arrazoi justifikatua.

14.2.5. Edukiontzi eta ontziak bildu, lekuz aldatu, entregatu eta jartzea

Edukiontzi edo ontziak garraiatu eta entregatzeko/jartzeko lanak egin behar direnean, esleipendunaren betebeharra izango da behar diren unitateak dauden leku edo biltegitik hartu eta jarri behar diren lekura eraman eta jartzea.

a. Kaleko edukiontziak

Kontratu honen bidez, esleipendunak bere egiten du honakoak bermatzeko erantzukizuna:

- Hondakinak jasotzeko ekarpen gune guztietan beharrezko diren edukiontziak egongo dira beti, kontratu honen objektu diren zerbitzuak eskaini ahal izateko.
- Hondakinak biltzeko zerbitzuetan jarritako edukiontziak erabiltzeko egoera onean egongo dira.
- Edukiontzi bakar batek ere ez du arriskurik sortuko beste batzuentzat (ibilgailuak, oinezkoak eta abar).
- Kaleko obrak edo bestelako arrazoiak direla eta, edukiontziak ez dira jarriko erabiltzea eta biltzea ezinezko egiten duten lekuetan.
- Edukiontzi bakar batek ere ez du ibilgailu edo pertsonen joan-etorria oztopatu edo galaraziko.
- Istiluak gerta daitezkeela aurreikusten bada, istiluak gerta daitezkeen lekuetan ez da edukiontzirik egongo.
- Hondakinak edukiontzira sartzeko aho guztiak uneoro egoera onean egongo dira, oztoporik gabe (ez dira egongo eraikin, poste, farola edo bestelako ezeren aurrean).

Horretarako, esleipendunak edukiontziak lekuz aldatzeko eta jartzeko behar diren lanak egingo ditu, hala nola, edukiontzia lekuz aldatzen denean behar bezala jartzeko lanak nahiz edukiontzia bere eremuan, dagokion lekuan, egoki jartzeko lanak.

Edukiontziak lekuz aldatzeko eta bere lekuan jartzeko honako lanak egingo dira, gutxienez:

- Edukiontziak jarri, behar berriak direla eta (urbanizazio berriak eta abar).
- Daudenak kendu eta unitate berriak jarri, daudenak erabiliaren erabiliz hondatu direlako, istripuren bat izan delako, istiluak izan direlako eta abar.
- Edukiontziak aldi batez lekuz aldatu, obrak direla eta.
- Udaltzaingoaren eskariengatik, segurtasuna dela eta.
- Partikularren edo enpresen eskariengatik.
- Garbiketa lan bereziak direla eta.
- Festa, ospakizun, ekitaldi publiko eta antzekoengatik.
- Bestelako arrazoiengatik, Udal Elkartearen zerbitzu teknikoen iritziz edukiontziak lekuz aldatzea edo jartzea (aldi batez nahiz era iraunkorrean) beharrezkoa baldin bada.

Esleipendunak edukiontziak lekuz aldatu eta jartzeko lanak egingo ditu lanegunetan eta, deskribatutako betebehar horiek betetzeko beharrezkoa bada, jaiegun, larunbat edota igandeetan ere bai.

Edukiontziak lekuz aldatu eta jartzeko lan orok Udal Elkartearen baimen edo agindua behar du aurrez.

Udalek, enpresek, partikularrek edo beste batzuk esleipendunari eskatzen badiote edukiontziak lekuz aldatzeko eta jartzeko, esleipendunak eskaria Udal Elkarteari komunikatuko dio. Udal Elkarteak eskaria aztertu eta, horrela badagokio, esleipendunari aginduko dio edukiontzia lekuz aldatzeko edo jartzeko lanak egiteko. Horri dagokionez, eskaeratzat hartuko da esleipendunari egiten zaion eskaera-komunikazioa, ahoz nahiz idatziz eta edozein bitarteko erabiliz (posta elektronikoa, telefono mugikorra, idatzia eta abar).

Udal Elkarteak finkatu ahal izango ditu hondakinak biltzeko zerbitzuetan jarrita dauden edukiontzien kokapen eta norabide zehatza adierazteko sistemak, hala nola piboteak jartzea, edukiontziak hartzen duen azalera margotzea edo beste batzuk. Esleipendunaren betebeharra da hustu ondoren edukiontzia jartzea adierazitako eremuan, norabide egokiarekin, Udal Elkarteak emandako jarraibideak betez.

Bildu ondoren, edukiontzia utziko da estalkia itxita eta balaztak eta lotzeko gailua jarrita, baldin baditu.

b. Atez ateko sistemako edukiontzi eta ontziak, erabiltzaileei emango zaizkienak

Edukiontziak edo ontziak birjarri behar direnean, kontratistak atez ateko sistemako ontziak eta edukiontziak bildu, garraiatu eta erabiltzaileei emango dizkie, Mankomunitateak horri buruz ezartzen duenaren arabera.

IV. ATALA. LANGILEAK

15. LANGILEAK

Esleipendunak uneoro eskura izango ditu kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez eskaintzeko behar diren langileak, eskakizun teknikoen orriotan eta administrazio baldintza zehatzen orrietan ezarritako jarraibide eta zehaztapenen arabera.

Lehiatzen duten enpresek kontratuaren objektu diren zerbitzuak nola antolatu aztertuko dute eta eskaintzan proposamen zehatza egingo dute, beharrezko aurreikusten duten langile taldearen eta horien eginkizunei buruz, honako kategoria hauek bereiziz:

a. ZUZENEKO LANGILEAK:
   - Gidaria
   - Peoia

b. ZEHARKAKO LANGILEAK:
   - Zuzendari teknikoa
   - Enkargatua
   - Administraria

Kontratistak, aurkeztutako eskaintzaren arabera, lanak behar bezala egiteko behar diren langileak jarri beharko ditu zerbitzuaren esku. Halaber, langileak egokitu beharko ditu, edo, beharrezkoa bada, langileen kopurua handitu, kontratatutako zerbitzuan sortzen diren gorabeherei aurre egiteko. Horrek ez du esleipen prezioa aldaraziko, administrazio baldintzen orrietako 14. baldintzak ezarritakoari kalterik egin gabe.

Aipatutako langileak kontratuari atxikita egongo dira, zeharkako langileak barne, eta, beraz, ezingo dute atxikita egon enpresa esleipendunaren Administrazio eta Kontrol Departamentura.

Esleipendunak zerbitzuari uneoro eskaini behar dizkio kontratuaren objektu diren zerbitzuak eraginkortasunez burutzeko eta bestelako gorabeherei aurre egiteko (bajak gaixotasun edo istripuengatik, baimenak, sindikatu-lanak, oporrak, behar bezala justifikatutako bestelako gorabeherak, ustekabeko bajak eta lanuzteak) behar diren giza baliabideak (zuzeneko nahiz zeharkako langileak).

Langileen baja edo lanuzte horiek berehala ordezkatuko ditu esleipendunak (bajaren egun berean). Ordezko langileek behar besteko kualifikazioa, prestakuntza eta esperientzia izango dituzte, lanpostuaren eginkizunak kontuan hartuta, betiere administrazio baldintza zehatzen 31. baldintzak euskararen normalizazioari buruz ezartzen dituenak betez.

Eskakizun teknikoen orriotako 13.2 baldintzarekin bat etorriz, esleipendunak zuzendari tekniko bat eta zerbitzu arduradun/enkargatu bat izendatuko ditu.

Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako harreman juridiko edo lan harremanik izango esleipendunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen epearen barruan, ez kontratua amaitu ondoren. Esleipendunari dagozkio, beraz, kontratu honen haritik esleipendunaren eta bere langileen artean sortzen diren betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

15. eranskinean dago zehaztuta zerbitzuari atxikitako langileen zerrenda, esleipendunak sektoreko lan hitzarmen orokorreko betebeharrak bete ditzan.

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu, bai eta kontratuari aplikagarri zaion gainerako araubidea ere. Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Enpresan lan gatazka gertatu edo greba egiten bada, enpresa esleipendunak gutxieneko zerbitzuak eskaini beharko ditu, Urola Kostako Udal Elkarteak edo eskumena duten erakundeek ezartzen dutenaren argitara.

Lehiatzaileek beren eskaintzan kontratuko langileak antolatzeko eta kudeatzeko aurreikusten duten proposamena azaldu behar dute, honako alderdiak adieraziz:

a. Kontratuaren objektu diren lanak egiteko behar diren langileak, egindako azterketak kontuan hartuta. Honakoak adierazi behar dira:

   - Kategoria profesionala.
   - Kategoria bakoitzaren urteko lansaria, kontzeptu guztiak bereiztuta (oinarrizko lansaria, plusak, aparteko lansariak...), antzinatasuna, hitzarmenekoak ez diren beste plus batzuk eta enpresaren gizarte kargak.
   - Langile bakoitzak urteko egindako lanaldiak.
   - Aurreikusitako lanuzte-lanaldiak, urtean.
   - Kontratu-mota eta iraupena.
   - Kategoria bakoitzaren unitate kostua: urtekoa, laneguna eta lanordua.

b. Langileen hutsuneei (ustekabekoei barne) aurre egiteko antolamendua eta prozedura, hutsunea berehala betetzea bermatzeko eta ordezko langileek egin behar dituzten lanak ondo ezagutzea bermatzeko.

c. Langileen kudeaketaren inguruko bestelako alderdiak: lan osasun eta higienea, langileen prestakuntza, lanaren egonkortasuna eta abar.

V. ATALA. BITARTEKO MATERIALAK

16. KONTRATUA BURUTZEKO EGIN BEHAR DIREN INBERTSIOAK

Kontratuari eransten zaizkion ondasunak, ibilgailuak, edukiontziak eta bestelako baliabide materialak erostearen ondoriozko kostuak bi (2) urteko epean banatuko dira, urteko kopuru berdinetan, eta kostu horiek kontratuaren indarraldiko bi prezioen esleipen-prezioan sartuko dira.

Nolanahi ere den, kontratuari aurreikusitako luzapen epeak aplikatzen ez bazaizkio, esleipendunak eskubidea izango du Udal Elkartearen eskutik jasotzeko bi (2) urteko epealdia osatu bitartean jasoko lukeen ondasunen amortizazio kostuen zatia.

17. EDUKIONTZIAK ETA ONTZIAK

Urola Kostako Mankomunitateari dagokio:

- Erabilera kolektiboko edukiontzi berriak erostea, bide publikoan jartzeko, hiriguneetan edo barreiatutako eremuetan.
- Erabiltzaile berrientzako ontzi eta edukiontzi berriak erostea, etxebizitzetarako, saltokietarako, zerbitzuetarako eta erakundeetarako.
- Edukiontzi berriak erostea, Mankomunitateko garbigunetan jartzeko.
- Industrietarako eta industrialdeetarako edukiontzi berriak erostea.
- Sarraila elektroniko berriak erostea, gune berrietan edo eremu berrietan kokatu beharreko edukiontzietan instalatzeko.
- Sarraila elektroniko berriak erostea, lizitazio-egunean oraindik zeuden sarraila mekanikoak ordezteko sarrailak barne.
- Kuboak, edukiontziak eta sarraila elektronikoak birjartzea, baldin eta ohiko tokitik kentzen edo desagertzen badira, eta bandalismo-ekintzen edo ezbeharren ondorioz kiskaltzen edo larriki hondatzen badira, eta haien azken egoerak ez du horiek konpontzea ahalbidetzen. Nolanahi ere, aipatutako elementu materialetako bat konpondu daitekeen ala ez erabakitzeko azken erabakia Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoen ahalmena izango da, enpresaburuari entzun ondoren.
- Edukiontziek eramaten dituzten informazio-itsasgarriak hornitzea, besteak beste, bota daitezkeen hondakin-motei, egutegiari, ordutegiari eta erabiltzeko moduari buruzkoak.

Kontratu honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira aintzat:

- Zerbitzuaren edukiontzi eta ontziak: batetik, kalean, establezimenduetan eta pilak gaika biltzeko zerbitzura atxikitako zentroetan jarrita daudenak, erabiltzaileen eskura, eta, bestetik, Udal Elkarteak onartu eta erabiltzaile partikularrek, komertzioek, zerbitzuek edo industriek dituztenak, beren etxeko hondakinak bilketa zerbitzuen eskura jartzeko.

- Ordezko edukiontzi eta ontziak: biltegian prest daudenak, behar izanez gero berehala erabiltzeko. Halaber, ordezko edo erreserbako edukiontzi edo ontziak dira aldi batez erabili behar direnak (jai edo ekitaldiak, edukiontzien matxurak, edo bestelako arrazoiak). Une horretako behar edo zerbitzua amaitutakoan erretiratu egingo dira.

Edukiontzien kopuruak bermatuko du edukiontziak ezarritako husteko maiztasunarekin ez dela inoiz gaindituko edukiontzi guztien betetze mailaren %75.

Esleipendunak kontratua indarrean dagoen epearen barruan behar diren edukiontziak jarriko ditu, behar adina, uneoro sortzen diren hondakinak behar bezala bildu eta bilketa zerbitzua eraginkortasunez burutzea bermatzeko.

2. eranskinean dago zehaztuta enpresa esleipendunari lagako zaizkion edukiontzien zerrenda.

Zerbitzuan jartzen den edukiontzi edo ontzi oro (Mankomunitateak lagatakoak barne) edo erreserban dagoena berehala kontratistaren betebehar guztietara igaroko da bilketa, garbiketa, birjartze, aseguru eta abarri dagokienez, baita zerbitzuan dauden gainerako elementuei dagokienez ere.

18. IBILGAILUAK

Lizitatzaileek, kontratuaren objektu diren zerbitzuak eskaintzeko behar diren bitarteko materialak aztertu ondoren, proposamen zehatza egingo dute hondakinak biltzeko beharko dituzten ibilgailu, makina eta bestelako bitartekoak adieraziz. Proposamen horretan argi eta garbi adieraziko dituzte honakoak:

a. Zerbitzua eskaintzen egunero erabiliko diren ibilgailuak (ekipo titularrak), zerbitzuak eraginkortasunez eskaintzeko ezinbestekoak direnak.

b. Ordezko ibilgailuak, hau da, zerbitzua eskaintzen egunero erabiltzen ez direnak, baina prest egon behar dutenak ekipo titularrak ordezkatzeko, matxura eta mantentze-lanetan, edo zerbitzuak gehitu behar direnean.

Ordezko ibilgailutzat ez dira hartuko esleipendunaren instalazio finkoetan ez dauden eta kontratu honi atxikita ez dauden ibilgailuak.

Hondakinak biltzeko zerbitzuen esku lagatzen diren baliabideak ahalik eta ondoen baliatze aldera, Udal Elkarteak ibilgailuen zerrenda bat finkatu du, **2. eranskinean** zehazten dena. Ibilgailu horiek aurreko kontratutik datoz eta, egoera onean daudenez eta baldintzen orri hauen objektu den kontratuaren iraupena baino haratago doan bizitza erabilgarria izango dutela aurreikusten denez, esleipendunak ibilgailu horiek erabili beharko ditu, ibilgailu titular nahiz ordezko gisa.

Ibilgailu horien titularra Udal Elkartea izango da, baina erabiltzearen ondorio diren gastuak (mantentze-lanak, aseguruak, ikuskapenak...) esleipendunaren gain joango dira. Esleipendunak mantentze-lanen kontratuak egin beharko ditu lagatako ibilgailuen zerbitzu ofizialekin. Kontratu horien iraupena bat etorriko da kontratu honen iraupenarekin.

16. eranskinean dago zehaztuta esleipendunak kontratuaren objektua betetzeko erabiliko dituen **ibilgailuen gutxieneko inbertsioen** zerrenda.

Zerbitzua eskaintzeko erabiliko diren ibilgailu titular berriek zehatz mehatz beteko dituzte, gutxienez, **17. eranskinean** zehaztuta dauden **ezaugarri teknikoak**.

Esleipendunaren kontura izango dira ibilgailu horiek erabiltzeak eragindako gastuak (mantentze-lanak, aseguruak, azterketa teknikoak...). Halaber, esleipendunaren betebeharra izango da ibilgailuaren zerbitzu ofizialarekin mantentze-kontratua egitea, kontratu honek irauten duen epealdi berberarekin.

Ibilgailuen pintura kolorea eta errotulazioa esleipendunak proposatu eta Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek ontzat emandakoa izango da.

Kontratistak bere gain hartuko du, kontratuaren barruan, zerbitzuari atxikitako ibilgailu jakin batzuen biniloa. Biniloek Urola Kostako Mankomunitateak garatzen dituen komunikazio kanpainei buruzko informazioa jasoko dute (biniloen diseinua Mankomunitatearen kontura izango da). Urtean gutxienez bi binilatu ezartzen dira alboko kargako bi kamioirentzat eta atzeko kargako bi kamioirentzat.

Gorago adierazitako bitartekoak (ohikoa eta ordezkoa) eskura izan beharko ditu esleipendunak, gutxienez, kontratuaren objektu diren lanak egiteko.

Esleipendunak bitarteko horiek handitu egin beharko ditu garaiz, beharrezkoa bada, zerbitzu publikoa behar bezala burutzea bermatzeko, kontratuaren alderdi guztietan, eta horrek ez du esleitzeko prezioa igotzerik ekarriko, administrazio baldintza zehatzen orrietako 14. baldintzak ezarritakoari kalterik egin gabe.

Esleipendunak ibilgailuak eta beste bitarteko materialak behar bezala mantendu eta zaintzeko betebeharra beteko duela bermatzeko, kontratua amaitu baino hiru (3) hilabete lehenago Urola Kostako Udal Elkarteak

egoki irizten duen esku-hartze teknikoa egingo du eta, esleipendunaren kontura, eta atzematen diren akats eta kalteak konpondu eta hondatutako osagaiak ordezkatuko dira, betiere behar bezala erabili eta mantentzearen ondorioz gertatutako narriadurak alde batera utzita.

19. KALITATEAREN KUDEAKETA

Urola Kostako Mankomunitateak kontratatutako zerbitzuen betetze- eta kalitate-kontrola egingo du, zerbitzua kontratu honetan ezarritakoaren arabera egiten dela egiaztatzeko.

Kontrola Mankomunitateko teknikariek edo Mankomunitatetik kanpoko auditoretza-enpresa batek egingo dute.

EGINBIDEA:

Eginbide hau nik egin eta sinatzen dut, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari kontu-hartzaileak, adierazteko eskakizun teknikoen orri hauek onartu dituela Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2022ko abenduaren 19ko akordioaren bidez.

Sinatzailea	IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA Izaskun Altuna Mariezkurrena
Kodea	Z 22/0149
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA364R8.LhKo
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu	

Ziurtagiri elektronikoarekin sinatuta / Firmado con certificado digital 2022/12/20